

Euskal hezkuntza museoari buruzko ekarpenak

Keça Perez Urraza Jna.

UPV-EHU.ko irakaslea eta Eusko Ikaskuntzakera
Euskal hezkuntza museoa sortzeko

Euskal Herriaren esperientzia sozio-historikoan eta eskola museogintzaz dagoen ereduan errotuz, euskal hezkuntza sistemarako ekarpen akademikoa proposatzen dugu. Baterik, euskal hezkuntzaren ibilbide historikoari hurbilketa egiten zaio: aspaldiko eskola-inguruko museogintza, hezkuntzaren historia laburtua eta pedagogoen ekarpen unibertsala. Bestetik, hezkuntza museoak izan beharko lituzkeen atalak, berauek antolatzeko eta eskola materialea sailkatzeko irizpideak aztertzen dira. Horrez gain, hezkuntza ondarea berreskuratuz eta zabalduz, hiritar gustiontzat identifikazio gune bilakatzea, eta objektuen eta subjektuen arteko dialektikan sakontzea. Azkenik, Bilbotik, euskal hezkuntza museoari egi(te)n zaion ekarpena kontutan hartzen da.

Basandonos en la experiencia socio-histórica del País Vasco y en el modelo de museo escolar, proponemos esta aportación académica para el sistema educativo. Por una parte, nos hemos acercado al recorrido histórico de la educación vasca: la museografía del entorno escolar de antaño, la historia resumida de la educación y la aportación universal de los pedagogos. Por otra parte, las distintas partes de las que debería constar el museo de la educación; hemos analizado los criterios para clasificar el museo y los materiales escolares. Además, recuperando y aumentando el patrimonio educativo, lo hemos convertido en un escenario de identificación para todos los ciudadanos y hemos profundizado en la dialéctica entre el objeto y el sujeto. Para finalizar, hemos considerado la aportación que desde Bilbao se le ha hecho y se le hace al museo de educación vasca.

We propose to make an academic contribution to the Basque educational system by creating a museum that reflects the socio-historical experience of education and the system of learning. In the first place, it will transmit a historical vision of the relationship with museology regarding the history of education and the contributions of pedagogues on a world level. In addition, an explanation is given of the sections that should make up a museum of such characteristics. Besides, a museum of these characteristics serves for the recovery of the school patrimony. Finally, the contribution that Bilbao might make to the formation of the museum is described.

Aurkezpena

Dakizuenek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak babestua eta Eusko Ikaskuntzak kudeatuta, Euskal Eskola Museorako proiektua jadanik martxan ari dela. Eta ohartuko zaretenek, Eskola Museo hori eraikitzea zenbait urtetako prozesu luzea izango da.

Komunikazio honen helburua, euskal hezkuntza museoaren filosofian zertzelada orokor batzuk eskeintzea baino ez da. Bertan museologia arloa, museoaren antolaketa ereduak, bildumen katalogazioa, erakusketa sistemak, finantziaketa, eta bestelako hainbat funtzio eta atal ikutu ere ez ditugu egingo.

Sarrera

ICOM (International Council of Museums) Batzordeak, 1974. urtean, museoaz proposatu definizioaren arabera (Alonso, 1993, 31),

“gizartearen eta bere garapenaren zerbitzurako, eta estudio, hezkuntza eta atseginerako, gizabanakoaren eta bere ingurunearen lekukotasun materialak lortu, gorde, ikertu, komunikatu eta erakusten duen erakunde iraunkorra da, publikoari irekia eta irabazte-xederik gabekoa”,

eta hezkuntza museoa gure kasuan, Euskal Herrian garatu den hezkuntzaren oroimen historikoa berreskuratu, gaurkotu (E.I., 1998, 1) eta, euskal hezkuntza sistamarantz ekarpen akademikoa izan.

Arlo teorikoaz ari garelarik, hirugarren mileniumean sartzera goazen unean, argi dago, euskal hezkuntza museoak baliokidetzat unibertsitate frogatu beharko duela. Baliokidetzat maila honoko giltzarri izan daitezkeen bost dimentsio edo ezaugarri hauetan antzeman daitezke: zientifikoa, historikoa, europar ereduaren ainakoa, sare informatizatuan sartua egotea eta askatzailea izatea.

Bestalde arlo praktikoan, eskola materiala lokalizatzeko eta hezkuntza museoaren erakusketa iraunkorrak eduki lezakeen atalen proposamen modukoa eginen ausartzen gara. Azkenik, Bilbo hiria 700 urteurrena betetzera doan unean, euskal hezkuntza museorari egi(te)n zaion ekarpena kontutan hartzen da.

Eremu zientifikoaren islada

Giza zientzien barruan, museogintza eta hezkuntza arloak besarkatzen duen eskola museo proiektua, zein eredu zientifikoren islada den aztertzea komenigarri litzateke. Oinarrian, gizabanako eta kolektibitatearen arteko erlazio arazoa, eta hezkuntza sistemak gizartearen aldaketan eta berregintzan duen eragina da kontutan hartu nahi dena.

Hezkuntza soziologiaren ikuspegitik (Lerena, 1985, 236), egun hezkuntza museo ereduak honoko hiru paradigma hauetariko baten koka daiteke: orientazio positibista, enfoke interpretatzailea eta joera kritiko-dialektikoa, hurrenez hurren, J. Habermas-en (1994, 168) interes teknologikoa, praktikoa eta askatzailearekin lotuak daudelarik.

Hezkuntza museoak, hiru paradigma zientifiko hauen eraginak jasaten dituela argi esan dezakegu, eta bere erakusketa publikoak gizarteari azaltzerakoan horien norabideak jarraitzen dituela. Horra, Saez Carrerasen paradigmaren eruditik museorako moldatutako laukia, eta eskematikoki, enfoke bakoitzaren ezaugarri multzoa (1989, 69).



Hezkuntza-museoaren arloak	Paradigma interpretatzailea	Paradigma kritiko-dialektikoa	Paradigma positibista
Ondasun kulturala	Gizartearen aldaketarako norbanakoak sortua	Aldaketa-berregintza erlazioan kokatua, Norberak eraldatua	Besteena, externa. Gizarte egituraren mantenuko burutua
Edukiaren izaera	Subjektiboa, barnekoa	Dialektikoa. Baldintza historikoen interpretazio-erakuntza subjektiboa	Objektiboa, zatikagarria, neurgarria
Material erakusgarria	Sentimenduak, intentzioak, bibentziak	Hezkuntza debateak, gizartearen gatazka eta kontraesanak	Objektuen bilduma, elementuak, tresneria
Ikuslea	Subjektu aktibo interpretatzailea	Partaidetza aktibo eta kritiko eraldatzailea	Pasibo hartzailea
Espazioa eta baliabideak	Irekia, informala. Lan pertsonala burutzekoa	Irekia, talde ihardueran aritzekoak	Hertsia, formala, baliabide dirigituak
J. Habermas-en interesen arabera	Interes praktikoa	Interes askatzailea	Interes tekniko-instrumentala

Euskal Herriko hezkuntzaren historia laburra

Euskal Herrian garatu den bostehun urtetik honako hezkuntzaren ibilbide soziohistorikoa zehatzeko lekua eta unea ez badira ere, ondo datorkigu, XVI. mendeko euskal hezkuntzaren une disdiratsua. Hainbat euskaldunek sortu zuten eraginagatik, agian euskal hezkuntzaren haseratzat jo dezakegu. Hor daukagu aski sakondua izan den, hezkuntza arloan lehen erreferentzia balio-tsua ematen diguten idazle aintzindari multzoa: J.Itziar, J. Huarte, J. Leizarraga, I. Loiola,... (AZURMENDI, 1985, 362).

Garai horretan hasita, orduko bi erresumen eta egungo bi Estatu indartsuren menpe egonik, Euskal Herrian garatu diren irakaskuntza sistema desberdinen produkzioa erakutsi beharko du euskal hezkuntza museoak, batetik, irakaskuntza publikoaren alorrean, bestetik irakaskuntza pribatuaren eragina, eta azkenik, euskal erresistentziak eraikitako eskola motak, kontraesanak eta eraginak aurrez aurre agertuz.

Hezkuntza sistema publiko estatal deitutakoei dagokionez, XVIII. mendearen azkenaldean, Frantses Estatuan sortutako sistema nazional frantsesak ez soilik Iparraldean izan eta duen presentzia (inposaketa) erabakiorragatik, baizik Estatu Espaniarrean eraikitako hezkuntza sistema bera konfiguratzeko izan eta duen eraginagatik ere agertu beharko dugu. Gauza jakina baita, Hegoaldean bakarria den hezkuntza sistema espaniarra, lehenik, 1812ko Cadizeko Gorteetan eta geroztikako hezkuntza lege eta araudietan, 1857ko Moyano, 1970ko LGE, eta LOGSE legeak barne, hexagonoko eredu zentralista eta uniformatzailearen jarraitzailea izan delako.

Bestalde, irakaskuntza pribatuari dagokionez, gizon-emakumezkoen orden erlijiosoek gure herrian izan eta duten eragina, agian oraindik baloratu gabe dago. I. Loiolak sortu zuen Jesusen Aldundia, mendeetan zehar, hezkuntza arloan hainbat eskola, kolegio eta unibertsitate eraikiaz gain, irakaskuntza mota baten asmatzaile-praktikatzaile izan baita: *Ratio Studiorum* deitutako plan pedagogikoa. Jesus Aldundiaren eragina, Euskal Herrian, XVII. mendetik gaurdaino nabarmentzen da, euren kolegioak Donostian (1679), Tuteran (1687), Bergaran, Urduñan,... ezarriz. J. B. Lasalle frantsesak 1682. urtean sortutako orden erlijiosoak, XIX. mendetik gaurdaino, Ipar eta Hego Euskal Herrian 30 ikastegitako ardura zuzena eta zeharkakoa baitauka (GALLEGO, 1978, 821). Mende osoko eragina ostera, besteak beste, Ama Mesedetako ordena, Marianistak, Karidadeko Ahizpak, Eskolapioak, eta abar luzea.

Eraikuntza eta erresistentzia garaiak, batetik, instituzioetatik bideratukoa, XIX. mendean, euskal diputazioek lehenik, maisu euskaldunen beharrianaren eskabidea daukagu, eta geroztik, mende honen haseran, Bizkaian esaterako, auzo eskolak deitutako eraikin eta mugimendua. Bestetik, aldameneko Estatu biek Euskal Herriarekiko eraman (z)duten zanpaketa kultural, hizkuntzazkoa eta hezkuntzazkoa konturatuz gero, hasi zen euskal nazionalismoa eraso horiei aurre egiten. XX. mendearen zehar, saikaera eraikitzaile eta garrantzi-

tsuenetarikoa, ikastolen mugimenduak suposatu duen euskal hizkuntza, kultur, herri eta nazio proiektua izan da.

XX.mendearen bukaera honetan, Euskal Herria osorik hartuta, eta hemengo lehen mailako ikastegi gehienetan hiru hizkuntza eta zenbaitetan, lau desberdin lantzen direla egiazta liteke: euskara, frantsesera, gaztelera eta ingelezra. Hiru hizkuntzen lanketa garbi dago ikastoletan eta euskal ereduako eskola publikoetan. Lau hizkuntza adibidez, Nafarroako Lizarra Ikastolan arrakastaz lantzen da. Horrez gain, Ikastolen Elkarteak hizkuntzen irakaskuntza metodoa dela eta jasotako sari aipagarria daukagu.

Esandako guztia nolabait eskema baten laburtuz, zera genuke:

Mendeak	ELIZA	Erresuma (ESTATUA)	HEZKUNTZA KOMUNITATEA
XVI	Kontraerreforma	<i>Indietako diruaz eraikitako zenbait berri-eskola</i> J. Leizarraga I. Loiola J. Itziar kaligrafoa (Jesusen Aldundia)	↓
XVII	Jesuiten Ikastegiak Bilbon (1611), Tuteran, (1687),...	Euskal kaligrafoak	↓
XVIII	<i>Bestelako orden erlijiosoak</i> Maisu-titulua eskuratzeko erret zedula (1773) <i>Hegoaldean, Udalek oinarritzko hezkuntzaz eskuduntza</i> <i>Iparraldean, hezkuntzaren estatalizazioa</i>	Bergarako Erret Mintegia	↓
XIX		1812 - Frantses eredupeko Cadizeko Konstituzioa 1831 - Lehen Letretako Eskola Normala Nafarroan 1857 - <i>Moyano Hezkuntza legearen bidez Hegoaldean</i> <i>estatalizazioa</i>	↓
XX		1918 – Eusko Ikaskuntzaren sorrera 1925 – Bizkaiko Diputazioaren auzo eskolak 1960 – Ikastolen mugimenduaren indartzea 1970 Ley Generalde Educación 1990 LOGSE 1993 Euskal Eskola Publikoari buruzko legea 1998 - <i>Euskal Eskola Museorako proiektua</i>	↓
XXI ?		Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala erakundetzea	

Europar ainako maila

Euskal Herrian hezkuntza museoak sortu aurretik, komenigarritzat iritzi dugu, inguruneko herrialdeek duten eskola museoak ikusi eta bertatik ikasteari. Handik gauza egokiak hartu eta egun eraiki dezakegun neurrian, zenbait berrikuntza ezarri, izan ere, munduan zehar barreiatuak ehundaka era ezberdineko eskola museo agertzen baita.

Hori dela eta, Europako 15 hezkuntza museo ikustatu dugu: beren ezaugarri eta sailen irizpideak aztertu, objektu didaktiko eta bestelakoen bildumak ikusi, finantziabide eta katalogazio sistemak ezagutu,... Ondorioz, Euskal Herrian eraiki daitekeen hezkuntza museoak, haien ainako duintasun maila izan dezakeelakoan gaude.

Mendebaleko Europan era desberdinetako eskola museoak ageri dira, elementu amankomunez gain, bakoitzak bere berezitasunak dituena: badira eskola museo nazionalak deitutakoak, erregio (autonomia, departamentu, lander,...) mailakoak, nekazal inguruneari lotutako eskola museo, pedagogo jakin baten inguruan eraikiak (Comenio, Pestalozzi, Puskin,...), publikoak (Estatu, Administrazio Autonomiko, udala,...), eta pribatuak (orden erlijiosoena (Lasalletarrak), edota fundazio baten ardurapean). Lolalaz ari bagara, 15 erakusgelatik gorakoak, eta bizpairu geletakoak.

Europako eskola museoek duten elementu amankomunez ari bagara, handienek, norbere hezkuntza sistema propioaren garapen historikoa adierazten duen dokumentu bilduma beti dago agirian, eta zer esanik ez, ia erdiarotik hasita, mendez mendekako eskola edo ikasgelen eszenografiak (miniatura, grabatu, litografia eta argazkitan oinarrituak). Horrez gain, atal klasikotzat jo ditzakegun dokumentazio zentrua eta curriculumaren araberako arloak: irakurketa, natur eta giza zientziak, emakumeaz,...

Inork lokalizatzen har ez gaitzan, dimentsio europarra gure baitan errotua dagoela ezin da ukatu, eta arestian esandakoak kontutan harturik, euskal hezkuntza museoak, eskola museo orok duen izate bera eta bakarrak gain, bestelako ezaugarri diferentziatzaileak, besteak beste, azpimarra ditzake:

1. Orain arte ikusitako Europako eskola museoaren gida, ia soilik, bere hizkuntza bakarrean idatzita agertzen da, baina Euskal Hezkuntza Museoaren gida, lau hizkuntzetan agertzea egokitzat jotzen dugu, Euskal Herrian berba egiten diren hiru hizkuntzak, eta irakasten den laugarrena, ingelera.
2. Inguruneko eskola museoek oro har, irakaskuntza arautua edo normalizatua soilik kontutan hartzen dute. Euskal Hezkuntza Museoak hezkuntza bereziaz ere ardura beharko du izan, eta hain ezezaguna den aspaldiko eta ertzeko irakaskuntza erakundeen iharduera erakutsi: gormutuak, itsuena, inklusako umezurtzak, gaztetxoaren tribunale deiturikoa, joera higienista,...

3. Europako eskola museoaren kokapenaz zera esan liteke: ia gehienak, eraikin isolatu batean daudela: jauregi, eliza edota eskola izandako eraikinean, eta bestelako zerbitzuen (liburutegi, kultur talde,...) aldamenean. Horren aurrean, hemen defendatzen dugun ideia zera da: eskola museo egun lehen mailako hezkuntza ematen den ikastegiaren zati batean kokatzea, ondoko arrazoi hauegatik nagusiki:
 - Administrazioari, eraikin isolatua baino, beste baten integratuan egotea beti merkeago aterako zaionalako: mantenu gastuak, zerbitzuetako lanarigoa,
 - Museoak oro har, duen izaera estatikoari, faktore aktibo eta biziaren lotura eta jarraipena ematea. Astearen egun edota ordu jakinetan, egungo irakaskuntza sistema ere ikustatzeko aukera legokeelako (norabide bakarreko espillua, bideo grabaketaren bidez,...).
 - Museoaren eskaintza aktiboago izateko asmoz, aurretiaz bertoko ikasleekin museo ulertzeko hainbat ariketa didaktiko egin daitezkeelako.
 - Euskal curriculum lantzeko esperimendazio lekua izan daitezkeelako.
4. Eskola egutegia: ez dugu ia inongo eskola museotan ikusi ikasturte arrunt baten denboraren araberako eraskusketa iraunkorrik. Eta egon badago, jatorri historikoa duten hainbat hezkuntza iharduera: eguberri-tako belenak zein olentzero jaiak, zuhaitz egun ospetsuak, santa Ageda eta ihauteriak, maiatzeko jai eta amabirjinaren aldeko erritualak, egungo sanjuan festak,... Agian, eskolaz kanpoko ordutegian egonik, ez dira horregatik hezkuntzaren kanpoko arloak.

Hezkuntza museoaren ezaugarri askatzailea

Haseran aipatu hiru eredu zientifikoen argitan, enfoke kritiko dilaketikoa- ren alde jokatu, batetik, askapen pertsonalez arituko gara eta bestetik, kontraesanez beteriko gizarte egituren aldatetaz. Museogintzan aurkitu dugun enfoke kritikoa A. Leon-en aspaldiko liburuan agertzen da. Hezkuntza museoaz ari garelarik, sakonean planteatzen zaigun galdera, Apple-en eskutik hau- xe genuke:

“...baina gizarte batean, ez dagoenez zapalkuntza eta menerapen erlazioetatik dibortziatutako eskolarik, ez eta horiek gainditzeko borroketatik at ere ez, ezagupenaren irakaskuntzaz arduratu baino lehenago, zera galdetu beharko genioke geure buruari: zein ezagu- tza [*hezkuntza erakusketa eduki*] dago politikoki eta etikoki justifi- katurik?” (APPLE, 1990, 9). [azpimarratua geurea]

Beraz, batetik eskola, jakintza esparruan erakunde aktiboa den neurrian, eta ezjakintasunetik askatzen duen erakunde lez ulertzen dugun heinean, gau-

za bera aplikatu liteke hezkuntza museoaren helburuari. Hau da, egun zabaltzen ari den pentsamendu bakarraren aurrean, interpretazio pertsonal eta taldekako hausnarketak egiteko, berebiziko aukera eman beharko luke, hezkuntza museoaren erakunde kulturalak.

Bestetik, gure herrira etorriaz, XVI. mendeko J. Leizarragaren oinarritzko ideia dugu, “*Berce natione guciéc, ceinec bere languagean beçala, Heuscaldunak – ere berean duençat...*” (1990, 1393), eta P. Iztuetaren egungo beste hau, “*Egia abal da, Euskal Herriak bere egunean, beste estatu europearrekin bateratsu, bere estatu propioa eraiki ez zuelako, historiaren trena galdu duela, eta beraz, marko eurpearrean bere etorkizunaren jaube izateko aukera galdua duela?*” (1998, 14), biak kontuta hartu beharrekoa dira. Testuingurune honetan, gurea baino aginpide akademiko handiagoa duen T.W.Adornoren hitzak egokiak eskaini nahi ditugu: “Ez da posible, demokrazia burutua irudikatzerik, askatuen gizartearen ez bada” (1998, 95).

Euskal Herrian, garatu diren bi hezkuntza sistema ereduak buruzko ziklo historiko luze baten amaiera eta berriaren hasieran gaude. Aurreko baieztapen guztietan oinarrituz, zilegi liteke, honoko hau pentsatzea: egun ezagutzen ez dugun egitura juridiko-politiko desberdin batean, gure eskola museoak, euskal hezkuntza sistema nazional propiorako ekarpen akademikoak suposatzen izan duela.

Hezkuntza museoaren edukiaz lokalizatze prozesua

Euskal eskola museoaren hezkuntzari buruzko dokumentazio historikoa eguneratzeko eta eskola materiala jasotzeko eta bilduma osatzeko, ahalik eta jatorri desberdina duten iturrietara jo beharko da. Lehen etapa baten, hona besteak beste, Euskal Herriko hezkuntzan erabili diren objektuak eta dokumentazioa lokalizatzeke agortu gabeko esparru desberdinak:

1. XIX. eta XX. mende hasieran sortu eta eraikitako ikastegi publiko zein pribatuaren bisitaldiak egitea, batez ere azken hauetan, oraindik orain, ganbaretan gordea, eskola materiala anitza eta baliotsua dagoelako. Eskola Museoak tresneria hori eskuratzeko depositoa, maileguz edo uzkontzaren bidez, lankidetzaren hitzarmen bereziak sinatu beharko ditu orden erlijioso bakoitzaren nagusiarekin.
2. Ikastegi publikoetako dagokienez, zera esan liteke: ikaszentruetan erabiltzen ez den tresneria hezkuntza museoan egoteak honoko abantailak dituela: objektuen bilduma osoagoak izatea, testuingurune historiko-pedagogiko jakinean kokatzea, eta publiko zabalago batek ikusteko eta gozatzeko aukera edukitzea. Ikastetxe publikoekin ere lankidetzaren hitzarmena sinatuko da, beti ere, edozein erakusketa eta publikaziotan materiala emaniko eskolaren jatorria adieraziko delarik.

3. Urte hauetan zenbait ikastegi publiko zein pribatu zarratzen ere ezagatu dugu. Publikoen materiala normalki Hezkuntza Ordezkaritzako Hornidura eta Ekipamendu Atalera joaten da, eta hemen bertan eskola tresneria aukeratzeko beta izaten da. Eta pribatuena aldiz, orden erlijioso bereko beste ikaszentruetara bidaltzen da, maiz Euskal Herritik kanpo amaitzen delarik.
4. Aspaldiko eta egungo eskola materiala fabrikatu eta banatzen duten etxeekin kontaktuak eduki eta ahal den neurrian eskuratu. Ugari dira eskola materialaz egin izan diren erakusketak, objektuen katalogo, salmenta liburu, e.a. Etxeren bat aipatzerakoan Bilboko Perez Malumbres liburudenda eta materiale banatzaile ospetsua egingo genuke, oraintsu desagertu egin dena.
5. Gure hirietako antikuariak duten eskola inguruneko materiala ikustatu: proiektzio aparatuek, mapa, murale eta laminak, litografiak eta testuliburuak, diplomak, kromo albumak, jostailuak, e.a. sarritan horrelako lekue-tan, soilik aurki daitezke, eta kontaktuak eduki eta aldizka arakatzea komenigarri jotzen dugu.
6. Euskal eskola museoak, unibertsitateko hezkuntza arloko sailekin batera, Euskal Herriko zein kanpoko artxibo historiko, udal, ikastegi, hezkuntza erakunde eta gainerako artxiboetan irakaskuntza eremuko dokumentazio amaitezinez ikerketa akademikoak bultzatu eta emaitzak publikatu.
7. Euskal Herriko filmoteka eta fototeka desberdinetan hezkuntza, eskola eta hautzarolari buruzko argazkien bilaketa, positibatzea eta enmarkatzea.
8. Maila pribatuko iturria. Hezkuntza museoaren asmoa eta helburua, prentsaurreko eta komunikabideen bitartez, ahalik eta etxe gehienetara heleratzea komenigarri litzateke. Denbora latzetan euskal kutsua zezakeena desagertu bada ere, oraindik etxeetan garai bateko objektu eta dokumentazio baligarri aurkitzen denaren susmoa dugu: testuliburu, maisu-maistra titulo, eskola sari, eskolumeen argazki, jostailu, e.a.

Hezkuntza museoan erakusketa iraunkorreko proposamenak

Orain arte ikusitakoa eta esandakoa kontutan hartuz, hogeitik gorako atal, arlo edo sail montatzeko ainako materiala egon badago Euskal Herrian:

- Eskola eraikina: maketak, planu ugari eta kalitatezkoak, argazkiak, plakak,...
- Ikasgelak: argazkiak, eskolumeak taldean baina identifikatuak, maisu-maistra ospetsuak.

- Eskola-materialeaz lerrokapen dokumentu historikoak: Bakio (1770), Bergara (1848), Bilbo (1860), Eskoriatza (1911), Zeberio (1925), S. Martin de Unx (1955), Donostia,...
- Ikasgela eszenografiak: litografien bidez lorturiko XVIII. mendeko eskola. XIX. mendeko Arabako Lantenoko eskola. 1930. inguruko Bizkaiko auzo-eskola.
- Altzariak: eskola arazak, maisu-mahaia, pupitre ezberdinak, harbel, estufa, tarima,...
- Dokumentazio administratibo historikoa: sigilu, izendapen, diploma, sari, araudi,...
- Ikasleen objektuak: jantzi, uniforme, kartera, kahier, estutxe, harbeltxo, jostailu,...
- Curriculum eredu ezberdinak: Bilbo (1816;1857), Bergara (1860), auzo-eskola (1925).
- Irakurketa materialeak: ABCa (1576), kartillak, *catón*, laminak, irakurketa sistemak,...
- Idazketa: Itziarren liburuak (Zabalburu Fondoa), kaligrafia, idazketa tresneria,...
- Euskara atala: zapalkuntza historikoa, berreskurapen ahaleginak, biharko erronkak,...
- Hezkuntza berezia: itsu, gormutu, umezurtz, gazte tribunale, pobreen hezkuntza,...
- Erlijioa: laminak, katezismo historikoak, estanpak, lehen jaunartzea, domund,...
- Matematika: neurketa eta pisu sistemak: tresneria, laminak, gorputz geometrikoak,
- Geografia: mapak (erliebezkoak ere), esfera, lamina, atlas, liburuak, telurio,...
- Natur Zientziak: gorputz anatomia, laminak, fisika/kimika artefaktoak, animaliak,...
- Adierazpen arloko esperientzia higienistak, metodoak eta materiala.
- Proiekzio sistema eskolarrak: zootropo, linterna magikoa, estereoskopio, proiektorra,...
- Irakaslegoaren formazioa: XVII-XVIII. mendeetako maisutituloak, ikerketak, argazki,...
- Ikastolen mugimenduak produzitutako giza-esperientziaren erakusketa orijinala.

- Eskola egutegia: S. Nikolas, eguberria, Sta Ageda, ihauteria, zuhaitz eguna, maiatza,...
- Umeen jolas eta jostailuak: ohiko olgetak, argazkiak, tresneria, jolas-kantak,...
- Erakusketa bereziak:
 - Garaiko eskolaz oroimen liburuak: Unamuno, Zapata,...
 - Urteurrena ospatzerakoan ateratako liburuak (20 ale desberdin badugu)
 - Munduko eskola museoetatik eskuraturiko gidak, liburuak, kartelak,...
 - Euskal hezlariak: Itziar, Leizarraga, Loiola, Elizalde, Landeta, Zipitria,...
 - 1936. geroztik atzerrian hezkuntza ezagutu zuen belaunaldia: Belgika,...

Hezkuntza museoari Bilbotik egi(te)n zaion ekarpena

Ondo legoke, euskal hezkuntza museoak ospatzeko, Bilbo hiribilduaren 700 urteurrena aintzakotzat hartzea. Zazpi mende hauetan, Euskal Herriko biztanlego handiena duen guneak, irakaskuntza arloan zernolako ekarpena egin eta diezaiokeen hezkuntza museoari, eta beronek ospakizun berari da hemen planteatu nahi duguna. Beste berba batzuetan, batetik, dokumentazio historikoari jarraituz, eskola museoan erakusgarri izan daitekeen bertoko material nahikorik dagoela azpimarratzen dugu, eta bestetik, Bilbo hiriaren historiak, (lehenak, orainak eta geroak) ikastegietan lantzeko, materiale curricular bihur daitekeena ere badu.

Dokumentazio historikoari dagokionez, hasi, ia erdiarotik has gaitezke. Hezkuntza erakusketarako, 1511. urteko, Bilboko auzateria-fogeraizoa egin zeneko iturria daukagu, non gaztei irakurtzen irakasten zien maisua bait daukagu, *“En las casas de Pero Ruis de Hurduna/ e Antonio de Çaballa bibe el dicho/ Pedro Ruis e el maestro de amuestra ler/ a los moços. Ay II fuegos, II vesinos”* (1997, 292).

XVII. eta XVIII. mendeetako Bilboko lehen eta ertaineko irakaskuntzaren berri ematen digun dokumentu ugari gordetzen da. Besteak beste, Bilboko Umezurtzen Kolegioa (1630), gurasoen eta eskolamaisuen arteko auziak (1687), Jesuitak egotziak izan zireneko garaiko fondoa (1768), Bilboko Udalak luzaturiko maisu tituloen baliokidetzari buruzko auziak (1770), maisuen izendapen prozesuak (1772), nautika azterketak (1790), Andres Iburguenek egingandako aritmetika liburua (1792), e.a.

XIX. mendeko lehen erdikaldeko dokumentazioa askoz ere zehatzagoa da: latinitate eta erretorika irakasleak (1801), Ingalaterran hezitako bilbotarren barriak (1802), maisu titulua eskuratzekoa azterketa osoak (1807), jostune ikasketak (1816), lehen mailako eskola curriculum osoa (1816), gormutuen esko-

la (1820), nesken maistrak (1828), eskola publikoen araudiak (1850), ikasleen aukeraketa sistema (1857), ikasleen matrikula erroldak, azterketa ereduak, eta abar luzea.

XIX. mendearen azkenaldean, udal eskola eta kolegio ugari agertzen da Bilbon. Horien dokumentazio historikoa, eskola eraikin planuak, argazki fondoak, eskola altzarigintza eta tresneria, testuliburuak, eta abar, nahiko batuak eta gordeak daude.

XX. mendearen haseran aipagarria bestalde, Madrileko *Museo Pedagógico Nacionaleko* Manuel Cossío zuzendariak, 1905ean Bilbon egin zeneko Erakusketa Pedagogikoa zela eta emaniko hitzaldian, Bilbok zituen udal eskolen eraikinaz, paregabeko laudorioa bota zuen: 49 ikastegietatik 45 eraikin dotore eta isolatuetan kokatuak egotea (1905, 5).

Amaitzeko aipamen bat, guk dakigularik 1987an azken eskola erakusketa II. Euskal Mundu-Biltzarrean eratu zen, Bilboko Euskal Museoa, Eusko Ikaskuntzako kide ziren G. Arrien, L. Akesolo eta J.J. Granja osotuko Batzorde Eratzaileak montatua.

Bibliografia

- ADORNO T. W. (1998): *Educación para la emancipación*. Morata. Madrid.
- ALONSO FERNANDEZ L. (1993): *Museología. Introducción a la teoría y práctica del Museo*. Istmo. Madrid.
- APPLE M.W. (1990): "El poder del Estado y la política del conocimiento oficial", in *Euroliceo*, 4. zkia. Barcelona 9-14.
- ARRIEN G., eta beste (1987): *Haur liburu didaktikoen errolda, 1800-1976*. II. Euskla Mundu-Biltzarra. Bilbo.
- AZURMENDI J. (1985). "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian", in: *Euskal Herria, Historia eta Gizartea*. Jakin. Lankide Aurrezki Kutxa. Oiartzun.
- COSSIO M.B. (1905): *El maestro, la escuela y el material de enseñanza*. La Lectura. Madrid.
- ENRIQUEZ J., eta beste (1997): *Foguera-vecindario de las Villas de Vizcaya de 1511*. Fuentes documentales medievales del País Vasco bilduma. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- EUSKO IKASKUNTZA (1998): *Proyecto de Museo Escolar Vasco*. Typoscrit. Donostia.
- HABERMAS J. (1994): *Ciencia y técnica como ideología*. Tecnos. Madrid.

- IZTUETA P. (1998): *Notas al texto denominado "La dimensión vasca del curriculum de las Ikastolas"*. Typoscrit. Donostia.
- LEIZARRAGA J. (1571): *ABC edo Christinoen Instructionea*. Euskaltzaindia. Bilbo. 1990.
- LEON A. (1982): *El museo. Teoría, praxis y utopía*. Cátedra. Madrid.
- LERENA C. (1985): *Materiales de Sociología de la Educación y de la Cultura*. Zero. Madrid.
- SAEZ CARRERAS J. (1989): *La construcción de la educación. Entre la tecnología y la crítica*. I.C.E. Universidad de Murcia.